

**AITA JOSE ANTONIO DONOSTIA
1886-1986**

ANTONIO MARIA LABAYEN

Aita Jose Antonio Donostia izan zenaren oroimenez ezer gutxi berri esan dezaket. Baiñan «Eusko-Ikaskuntza» aldizkariak kaputxino apal bezain musikari ospetsuari zor zaion omena egin nahi diola-ta haren jaiotzaren heungarren urtea danez lantxo bat egitea eska didate. Ezin uka nezakean erregua, hain zuzen, adiskide on ta mamiari ezezkoa ematea esker txarrekoa litzakealako. Eta jakiña, nere jarduna hain bihotzean eta amagandik ikasitako euskeraz burutu behar. Aitor dezadan, ordea, umilki nere euskera arrunta ta kale-kutsuz josia agertuko zizutela. Egia aitortzeko ipar aldeko gure anaia euskaldun idazle diranok euskera askosaz, aberatsago ta jatorragoan mintza ohi rirala. Ez noakizuten izenik aipatzea, haien aldean azaltzea lotsatzen naiz. Alare nere euskera murrizak baldin ba du zerbait balio garri uler errezean guztiontzat gelditi dadin izan dut asmo nagusia.

Bestela Aita Donostia'ren eginkizun eta emaitza ugariak aski ezagun ta zabalduak daude Euskal-Herrian ezik mundu guztian ere. Praile anai ta gattetandik ikaskide maite izan zuen Aita Jorge Riezuri, Jainkoari esker oraindik bizi denak ondoen egutu zuena Aita Donostia. San Franzisko'ren bidetik ibiltzea erabaki.zunetik. Asi Lekaroztik eta beste nun nahi. Musika deiarri jarraituz donostiarra; eta matematikalari maisu trebea Riezu naparra bertatik bertara elkar ezagutu zuten. Aita Riezu'ren liburuxkan (Vida, obra y semblanza espiritual del Padre José Antonio de Donostia - Ed. Verdad y Caridad 1956) daude zehatz eta labur bilduak Aita Donostia'ren zer-nola guztiak. Hori aski ez zela Aita Donostia'ren eriotza geroztik honek egindako lan guztien bilduma bere bizkar gañean hartua du; eta amar-amabi liburu ederretan zabalduak. Eta musikaz kanpo Aita Donostia'ren literatura gaiak argitaratzeko asmotan dabil. ¡Hala gerta dadilla!

Eta ez ba'dira galduko Aita Riezu'ri esker izango da.

Horrengatik arrazoi eta merezimendu osoz Aita Riezu napar euskal zaleari, agure bizkor et jakintsuari ongi merezitako gorasareta agin zaio Lekaroz'ko txoko maitean.

Osasun kariatz egun hartan bertara ezin joan inzan ba'nintza nere agur eta zorionik sutsuenak bidali nizkion. Jainkoari eskatuz anitz urtez Aita Jorge bizirik iraun araz dezala.

Nork dakizki ark aña berri Aita Donostia'ri buruz?

Honako honek urte buruan eta aguretua aspaldi izanik eta buruz ma-kaltzen asia bere argalean, maiz oroitzen noiz eta nola ezagutu nuen Aita Donostia eta gure adiskidetasuna noiz asi zen.

1914-1918 tarteko urte latzetan bizi giñan. Ordurako Aita Jose Antonio donostiar Zulaika familikoa bere anai batekin Lekarozko ikastetxean ze-goan. Donostiar gazteari garai hartako musikaganako trebetasuna piztu zi-tzaion. Gabiola izan zuen maisu eta besteen artean Toribio Mujika'k bioliña jotzen ere erakutsi zion. Gero, Lekaroz'en Aita Elduayen, Etxezarreta ta beste zenbait izan zituen irakasle goitar. Ez dago esan beharrik sinismen su-tsu ta Jainkoaganako deia itsasirik zeuzkala.

Ez zen arrigarria Batxiler eta antzeko ikaskizunak amaitu ta gero, Le-karoz'en praile gelditzea erabaki ba zuen.

Jainkoanganako ta musikaren deia izan zituen gidari.

Gaia hartan, ez da aztu behar R. M. Azkue bizkaitar apaiz, jakintsu, as-per eziña asia zela Herri-kantategia biltzen.

Musika mota hau Aita Donostia'ri ere oso gogoko izan zitzaion eta bide hortatik zuzen-zuzen jo zuan, Herriz-Herri, ea etxez-etxe, atso-agureen ez-pañetatik aleunka musika-doñu ta bertsoaldiak jasorik. Bereala Aita Do-nostia'ren izena zabaltzen asi zen eta Herri nagusi gehienetatik, Bilbo, Iru-ña, Eibar, Gasteiz, Donostia'tik deiak etorri zitzaizkion. Bertatik bertara ezagutu ta ikusi nahi zuten. Haren itzaldiak entzuteko irrikitutik zeuden. Misiolaritza berria zen praile gazte hark entzun arazten zuena.

Oso gogoangarria izan zen Bilbo'n eman zuena.

Bilbo'ko Sdad. Filarmonicen emandako itzaldiak ots haundia atera zu-ten eta Cabanas-Oteiza margolariak egin zizkion edergarriak apainduta jantzita pozik utzi zuen gure jendea. Honela Tolosa'ra ere Aita Donostia ekar arazi genduen. Ez bakarrik itzaldi bat ematera, aste osoko musika aldia ematera baizik. Beste iñon eman ez zuen sail luze ta erakusgarria. Geroztik tolosarrok esker on berezia zor diogu. Ordu ezkerotik Aita Donostiaganako ezaguera ta maite miña.

1914.. 1918?... urte siñalagarriak. Gogoan dut Tolosa'n Azkue senda-gilleen etxean izan zuela ostatu. Familia ugaria, ta haunditasun gabekoa. Hori bai! kristau on eta behartzuentzat ongille ziranak. Aita Donostia beste deia ta eginkizunak utzirik Tolosa'n gelditu zan aste osoan, leiaketa lanak egiten. Musika giroa atsegin zitzaiola esanik daukagu. Eta orduko Tolosa'n zegoan abeslari zaletasuna ez zen txikia. «Orfeon Tolosano» izan-dakoak bizi ziran oraindik; buruzagi ospetsu zan Eduardo Mokoroa ere bai. «Cen-tro Musical» saiakerak egiteko leku berezia hantxen zegoan.

Aita Donostia'ren familia arras ezaguna zen Euskal Herrian ezik Espa-ña guztian ere, eleiz ta apaiz jende artean batik bat.

Ez musikaz noski... baiñan nortzuek ez Donostia'ko Loidi ta Zulai-ka'ren meza-ardoaren berri? Eleiz mutil izan giñanok ardo gozoaren txurru-ta txasta genduen. Nola nahi kaputxino praileek Donostia'n jarri ta tinka zi-tezen laguntza haundia eman zitzaion.

Sinis leike Aita Jose Antonio'ren ama izan zenak, kristau etxeoandre esku ta bihotz zabalak otoitzez gain, sakela ere ustuko zuela kaputxino praille behartsuei bizitzen laguntzen.

Eta hortan Donostia'n iriki ahal izan zuten aurreneko konbentu ta elizatxo Donostia'ko Garibay kalean, Lourdes'ko zaindari pean. Handik urte gutxitara bizileku ta eleiz haundi ederragoara aldatu ziran. Utsetik asita ez al da hau benetako mirari... Atzeruntz begiratuta, alabaiña gogoan artze-koa da eragopen artean Gipuzkoa'n sarturik zeudela. Prantzia'tik bidalita-koan Oyartzun-Errenderi bitartean babes lekua arki zuten.

Berriagoa da oraindik Ondarrabi-Amute inguruko Kaputxino konbentu Filipina eta Amerikaruntz mixiolari gazteak bidaltze-asmoz egiña. Zer esan Napar euskaldun Baztan baillaran zutik dagon Lekarotz deritzan ikas-teetxe ta prailategiz? Emen sartu zen gazterik Aita Donostia eta ikaskizun guztiak bukatuz betiko apaiz kaputxino izateko gelditu.

Aita Donostia ez zela iñundik alperra izan. Gizon urduria. Bai lagun jakintsu artean eta oro bat jende xeharen baitan lanean ziharduen beti gogotsu Jainkoa'ren aintzarako

Martiri izan ez zela aitorturik bere lanean larregi nekatu zela esan daiteke eta osasunez ez arras sendoa izanik aguro makaltzen joan zitzaigun eta uste bañon lehenago hil goraxeago exanik utzi dugunez. Musika elburutzat hartua zeukana ezin uka, baiñan praille kaputxinoaren egitekoak beteko zituen aurrenik.

Batetik bestera eten gabe ibilliaz ez zezakean luzaroan bizi izan eta jakiñik gaude zartzarora iritxi gabe hil zitzaigula. Musikari eskolatua izan ba zen, Kaputxino areago. Zehatz-mehatz, ondotxo eagutzen zituen San Franzisko bere aitaren gora-behera guztiak. Jorgensen, Sabatier, Curbert eta ahinbat eta hainbat biografo konta eziñak zenbat aldiz ez ote zituen irakurri? Nik ez dakidana da Italia'ra ibillaldirik egin ote zuenik. Eta alde batetik damugarri zaigu hala izatea.

San Frantzisko'ren jaioherriak bere gertakizunekin asko erakutsiko zioten kristautasun eta arte leku diranez.

Aita Donostia musika zalearentzat goi mallara igotzeko bidea. Corelli, Vivaldi, Albiñoni, Scarlati'ren sor leku izanik.

Etsetik at ibilli beharra izan ba zuen, ordañez Jainkoak Lekaroz'ko bere txoko ta kabira hiltzera etortzeko saria eman zion. Ez zuen horrekin alaigarririk txikiena izan.

Eta azken gertakizunen txanda dugu orain eta asper ez zaitezen zerbait esatea dagokit.

Nere burua aipatzea barkatuko al didazute. Aita Donostiak mintzatu-tako azken hitzaldia Donostia'ko Diputazioaren aretoan 1956 Urtarrilaren eskeñi zigun. On Fausto Arozena izan zen bitarteko. Bailan Aita Donostia hildakoan eta R. S. B. A. P. aldizkarian berri samiña eman beharra zegoela eta arren eta arren oroipen lantxoren bat idaztea eska zidan.

Hain nahigabetua arkitzen nintzan ez nuen ezetzkoa ematen asmatu eta emen dijoakizuten oroipen laburra idatzi nuen:

Ezin utzi dezakegu aipatzeke Bayona'ko apezpikuaren aginduz eta Blazy apaiza lagun zuela Arjentinara ibillaldi probetxuzkoa egin zuela. Diru biltzea aitzeki Ustaritze'ko seminario berria eraikitzeke laguntza emateagatik.

Urte haietan beste egin beharrak uzten ziotelarik tarteka-marteka gure etxera azaltzen zitzaigun emaille eta piano jotzaille bikaiña zanez puska berriren bat entzun araziko zigun; eta esatera ausartzen ez ba naiz nere txarrean «bioliña» igurtzi arazten zidan. Vivaldi, Bach, Haendel, Albiñoni edo antzekoak jo arazten zizkidan. Bera ere biolin jotzaille edo arrabalararia genduen, gorago esan dugunez Donostia'n Lekarotz'en sartu aurretik ikasia. Haren biolin «soiñugaillua» ondo gorderik dago Aita Riezu'ren eskuetan. Madrid'eko konserbatorioan erositakoa ote den esango nuke biolingille eon baten eskutatik irtena. Lekarotz-en musikari asieratik axola haundia eman zitzaion. Entzun izan dudanez musika talde osoa izan ohi zuten.

Naiz gero ikaskizunak ugaritu ta zaildu ziralarik gutxitzen joan alaigarritzat ez dira guztiak galdu. Aita Donostia'ren artxibotegia da lekuko. Nola ez aipa Cavaille-Coll organo ederrenetakoa, Aita Donostia'ren gurasoek eskeña? Piano ta Lekarotz-ko maisuak utzitako aberastasunak.

Aita Riezu'k oso egoki asmatu zuen lan eta musikagaillu danak txukun gordetzea. Aita Donostia'ren «artxiboa» deritzana han izango da Lekarotz'ko museo ta erakuslekurik garrantzitsuena.

Zorigaiztoz, Jainkoak hala nahita Aita Donostia uste baño lehenago il zitzaigun. 70 urte besterik bizkar gañean ez zituela. Adiñez ez hain gazte baiñan zartzaroatik urrutik. Dr. Marañoñ'ek makal arkiturik igarri omen zion ez zela luzaroan bizi izanen. Gaitz zital batek joa zegoela eta 1956 urteko igande batez Jainkoa'k eraman zigun zerura praile anai, senide, musikamale eta adizkideak nahigabeturik utzirik. Otoitz egitea gelditi zitzaigun erremedio bakarra.

Haren nagusiek Aita gazte Jose Antonio'k musikarako zekarren doai bereziaz oharturik erreztasun guztiak eman zizkieten bide hartatik jarrai zezan. Kaiolan sarturik dagoen txoriak ere ez du abesti berririk ikasten. Era berean Aita Jose Antonio ere ibilkari beharko zuen izan. Españi ta Frantzia'ko abategi ospetsuetan ikasletzat hartu zuten. Bai Solesmes, Montserrat, Silos ta beste monastegi sonatuenetan ondo eskolatu zen.

Pedrell, Apeles Mestres, Larregla, Otaño, Higinio Pinies adiskide ta maisutza zeuzkan. Katalanen musika doñu ta olerkiek oso gustagarri zitzaizkion eta euskaldun folkloreatzat eredu ta jarrai bide hartzea nahi zukean.

Aita Donostia aurrera zijoan musika ta elerti gai guztietan Bianan agian, osperik haundiena eman zioten lanek Piano'rako antolatu zituan «Preludios Vascos» izan ziran lehenengo aldiz Joakin Larregla piano jotzaille trebeak joak.

Musika soillari gagozkiola aitor dezakegu Aita Donostia ez dela sinfoni egille garaitzat hartu behar. Musika errikoi ta antziñako sorkariak gehiago maite zituen. Folklore umillaren zale zen. R. M. Azkue kendu ezkerok Kodaly ungaritarrarekin aldera enezake. Nork daki zenbat kanta zaar bildu zituan.

Ez Euskal Herrikoak bakarrik. Hor utzi dizkigu «*Canciones Sefardies*» España'tik bidalitako juduek sortuak.

Hain zuzen, aurtan Cordoban bizitako «*Maimonides*» jakintsuaren urtebetetzea dala-ta juduek ez daude azturik.

Aita Donostia'k ez zuen iñor nardatzen eta bere iritzi zabalez Bayona'n bizi ziren zenbait judutar familiekin ar-emana gordetzen zuan. Edozeñekin adiskidetasuna atxikitzea gogoko zitazion eta ez zekien iñori ezetz esaten. Horregatik izlari ta idazle gisa amaika lan idatzi ta itzaldi bikain garai hartako paper eta aldizkarietan irakur daitezkeanak. Aita Riezu jasorik dauzka guztiak eta ez noakizute har aipatzea.

Prantzian igaro zituen urteetan ez zuen astirik galdu. Musika izan zuela gehienik landutako arazoa berezkoa da. Orduko maisurik ospetsuenak ezagutu zituela ere bai Ravel'etik asita. Zenbat lan burutu zituan Aita Riezu'k lerroz-lerro aipatzen dizkigu. Baiñan Aita Donostia'k ez zuen beiñere antzi lehenengo kaputxino ta prantsiskotar zela. Lendabiziko lekua erlijioari eman zion beti. Horrela erakusten digute «*La Vie profonde*» de S. Francois ta elizan abestutzeko sortu zituen ainbat eta hainbat lanak. Luze litzake guztiak goraiatzea. Frantzia'ko herri kantategia iñork ez bezala ezagutzen zuen. Julien Tiersot folklore zalearen liburu ederra buruz zekian. Entzun izan nionez ez zion zaletasun haundierik Grieg eta ipar aldeko kantategiari.

Prantzian gudate ondoren erlijio aldeko joera piztu zelarik Maritain eta bere eskolako adiskide izan zen.

«Eresoinka euskal Jaurlaritzak sortutako abeslari ta dantzari taldean praile izanik ez ba zen sartu izan ate asko zabaldu zizkien eta kantaz ondo ornitu. Aita Donostia musika, kantategia ta erlijioaz at, otoi'tzez barne, noski, ez beste ezertan sartu. Noizbait pake osorik egin ez ba zen ere 1945 urtean gudatea amaitu zen. Nagusiek agindu zioten Aita Donostia'ri Lekaroz'ko kabira itzul zedilla eta gure prailea ohi izan zenez beti esaneko etxeruntz abia zen.

Aita nagusiek gertutakoak gerta ondoren nora bidali garaiz erabakiko zuten. Eta atsedean beharrezkoa emanik berriz ere musika gaietara bultz egin zioten. Doai ta jakituri berezia nun zeraman ondo jakiñik.

Honela Aita Donostia, billera, Symposium, batzar eta musikaria bilkuretan azaltzea bidezko zen. Madrid'en, Paris, Londres, Barzelona eta beste iri nagusi askotan aintzat art izan zen eta adiskide berri asko egin zituen. Lengoaz gañera, Guridi adin berekoan zan. Biak 1886 urtean sortuak, Behobide Antonio Jose eta abar ezagun izan zitzaizkion, aztu gabe antziñatik Barzelona'n zituenak. Hau zuela lekurik egokiena. Bertan Insituto Español de Musicología zegonez han kakokatu zen maizenik ogano jotzaille bezala bere anai kaputxinoei laguntzen ziela.

Naigabe ta dolu-miña haundia sortu bait zuen Aita Donostiaren erioztzak nere barruan nabaitu nuen zirrada iñor gutxi gaitutako zuen, Harengandik asko ikasia bait nintzan eta erakusbide zuzenak eman zizkidan beti elkarrekin urteen buruan izan genituen har-emanetan. Gorderik dauzkat hark eskeñiz zizkidan liburu zenbait. Batik bat «Sertillanges» aita dominikararren «La Via intellectuelle» ez daukat salgai. Haren gogai sakona: «pensez a la mort» ez zuen ikaritzen: «pensez plutôt à vivre» zuen eredutzat hartua. Alaz guztiaz «requiem»-go meza aspaldidanik egiña zuen.

Eta hil zelarik ospatutako eleizkizunean Lekarozk'ko konbentu elizan Elizondo'ko abeslari taldeak abestu zuten Juan Eraso Aita Donostia'ren ikasle izana zuzendari zelarik. Geroztik «requiem» meza hori Donostia, Tolosa ta beste eleiz askotan abestu da. Urtarril egun hartan iandako ongi ez edo makalaldiak Hain aguro mundutik eramango zuela ez genduen uste baiñan bestela izaki Jainkoaren borondatea. Negu hura kaltegarri izan zitzaion sendagillek esan ziotenez. Uda harta doi-doi Jesusen bihotzaren egunean azken aldiz meza eman zuen. Udara hura igarotzeko ez zuen aski indarririk izan. Eta Abustuaren 30'n il-zen erioztzarekin bat egiñik. Gogoan daukat 1956 urteko urtaril hartan gure adiskide ta historiagille jakintsuak Aita Donostia'ri dei egin ziona Diputazio'ko liburutegi aretoan itzaldi bat eman zezan. Eri egonagatik ez jakin Aita Donostia'k ezetz esan. Hau izan zen aukeratu zuen gaia: «*Euskal Herriko otoitzak*».

Ezin mintza egokiagorik aukera. Ilbeltza edo urtaillaren 26 garren eguna zen. Ez zen gehiago jende aurrean agertuko Euskal otoitzen artean be-raak Lekuin'en (Hasparren'en) agure bati bildutakoa ziren eta honela zioten:

«ba-noha loaren hartzea
Jesus zure izenean
Ene etsaien artean, jauna
zure odol dibinoaz
erosi nauzu munduan
arren erezibi nazazu
hil eta zeruan»

Guztiok dakigunez 1945 zorigaitzoko urtean U.S.A. amerikar altsuek Japon era bat zapaldu nahi zutena, tomiko lergaillu kixkalgarriak Hiroxima ta Nagasaki iri nagusien gañera jaurtirik gudaldiari azken fin eman ziole. Ezin esan nolako ondamendia lortu zuten; eta aleunka biztanle lortuta geldiziran.

Ez behar izugarri haren oroigarri urtero Abustuaren 6'n japonar errukarriok urte betetzeko elizkizun unigarrria ospatzen dute. Hango kristauok «Requiem» meza eskeintzeko ohitura jarri dute. Fauré, Querubini ta beste europar maisu ospetsuen mezak abesten dituzte. «Zaika Daukaku» japonar Unibersitate katolikoaren buru den Aita Tejon S.J. buruzagiak beste mezak ere aukera zitzake, Nere iritziak ezer gutxi balio ba'du Aita Donostia'rena begiz joko nuke garai hartako gertakizun negargarria oroitzuz eta gure kaputxinoaren omenez.

«Euskal Herriko otoitzak» azken bildutako lanaren ordaiñez. Hori dela-ta ausartzen naiz Aita Franzisko Tejon S.J. Japon'go Taik Unibersidadean nagusi ta maisu jarraitzen baldin ba'da behintzat Aita Donostia'ren «Requiem» meza abestu arazi dezala Hiroxima ta Natgasaki'n hailandakoen alde.

Orain ere Japon Herri dohakabea oñeza pean arkitzen da. Arrazoi bat Aita Donostia'ren «requiem» abestu dadin. Aita Tejon'i ondo ba derizkio Japon'en luzaroan bizitako Aita Arrupe euskaldunari ez zaio gaizki iduritu-ko. Onako honek berriz, bere ez jakiñean ez dauka gehiago esaterik. Oker ala zuzen nekizkian guztiak adierazi dizkitzuet. Gaizki esanak barkatu eta ontzat har gezurrik gabe eta sinisgarria diralako guztiak. Nere lana utsunez betea dagon ezkerro eta Aita Donostia'ren lanen lerroa jakitea beharrezkoa danez Aita Riezu'ren «Vida y Obras» liburutik hartuak ditut eta azken horrialdea agertuko ditut.

BIO-BIBLIOGRAFIA EZAGUNENA

Aita JOSE ANTONIO ZULAIKA ARREGUI JAIO ZEN
1886 urtearen Urtarillak 10

Hil zen berriz 1956 Abustuaren 30'n

United Press Amerikar berriemalleak eman zuen lehengotarik
Aita Donostia'ren eriotzaren berri. (albistia)

Munduan Jose Gonzalo izenez deitua 1896 urtean ikasle Lekaroz'en sartzen da, batxiller ikaskizunak eginez bertan gelditzeko. 1908 urtean apaiz egiten da; eta han jarraituko du 1918 urte arte maisu bihurtuz. Mutilletatik musikarako dohai bereziak zekarren eta Donostia'n Eleuterio Iburguren, Toribio Mujika eta Gabiola erakusle izan zituen. Behin Lekaroz'en Nikolas Tolosa, Tomas Elduayen eta Ismael Etkezarrak ondo jantzi zuten Eresi jakintzan. Gero Barzelona'n Ezkerra ta Cools osatuko ziotena.

Bere kaxa musikagintzan asi zelarik «DIANA deritzan eguberri doña asmatu zuen; eta honen ondoren hainbat beste lan: «Tantum Ergo» ta kuarteto bat 1911 urtean Segura'n lehenengo sari bat irabazten du; eskuratu ez ba zuen ere Bordes'en gai batez egiña ote zen mahaikoak erabaki zutelako. Bitartean bere burua hitzlaritzat ezagun arazten du. Musikazale asko adiskide ditu. Barzelona'n Granados. Esanik daukagu Kataluña oso gogo zuela. Beti ibilkari, ordea, 1918'n Madrid'en dago eta Perez Casas eta Arbos'en orkestak entzuteko egokiera ez du galduko. Hori bai aztu gabe kaputxino dala ta bertako Aktion Katolika eta antzeko erakunde lagunduz. Saso hartan «Preludios Vascos» pianorako gertatu zituen gaur zorionez Euskal Telebistan egunero entzun ohi ditugunak. Parisera johan beharrean gertatzen da eta han egiten du adiskide haundi H. Gheon teatro katolikoaren bultzagillea: «les trois miracles de Sainte Cécile»; «La vie profonde de Saint Francois eta «Le Noel de Greccio»ren lankide izango da.

Musika mota guztien azterle zorrotza zen eta berak aterako zuen Iztuetak nole asmatu zituen bere lanak. Baita ere gure San Ignazio'ren kantaldia nundik zetorkigun. Ez da arritzekoa zenbat musika lan sortu zizkigun geroztik. Eleiza gaiez gehienak, baiñan herri kantako ezin konta alakoak. Batzu bederik aipa beharko ditugu: «*Iteinerarium Mysticum*»: «*In feste VII dolorum Bm Virginis*» «*Oh Jesu Dulcissimo*»: «*Sub tuum presidium*»; «*Saeta Gertrudianas*»; «*Antifonas S. C.*»; «*Oh bone Jesus*», «*Lamento de las Almas*», «*Cantigas loores*» «*Dos canciones Salmantinas*» (Ledesma); «*Oh Santisima Anima*»: «*Que j'ai me ce divin enfant*»; «*Santa et Immaculata Virginitas*»; «*Stabat Mater*» «*Virgo Dei genitris*», «*Prière pour la Paiz*» abar eta abar. Hauetatik asko Tesoro Sacro Musical aldizkarian argitaraturik daude.

Herri kanten txanda aipatzea ezin amaitzeko lana litzake. Millatik gora aipatzea ez da ezer eta motz geldituko giñake.

Gizon bat bakarra izan da gure artean, langille eta jakintsu purrukatua. R.M. Azkue eta Aita Donostia ongi merezitako saria eta goresmenak irabazi dituzte. Aita Donostia'k kantarako ezik, piano, biolin eta beste eresgallutako musika lanak antolatu zituen aspergarri litzazueke danak emen azaltzea. Neronek ere ez dakizkit eta. Norbaitekin alderatu behar ba'nu Bikard Bury angles apezpikua datorkit burura. Aita Donostia'k liburuei zion maitasuna Rikard Bury «*Filobiblion*» idatzki ospetsua jarriko nuke aldamenean. Ez da arritzekoa ohore anitz irabazi ba'zitu: «*Real Academia de Bellas Artes de San Fernando*»; «*Euskaltzaindia*» «*Sda. de Musicologie de France*»; «*The Hispanic Society of Amerika*», «*Instituto Español de Musicologia*»;...

Eta azkenik «EUSKO IKASKUNTZA kide ta laguntzaille genduen aldetik AITA DONOSTIA'ren jaiotzaren urte betetzean oroimen labur bat opa nahi diogu. Nere lantxoa baldar eta utsez betea egon arren uts larrigoa litzake isilik egotea.

BAYONA'ko EUSKAL MUSEO-ARI GORASARREA

Aita Donostia'k Euskal Museoa'ri amargarren urte kariaz 1932'n hain zuzen, prantsesez lan bat idatzi zuen musika gaiez ornitua.

Euskeraz itzultzea bidezko iduri zait hark Lekaroz'tik igorritako xehetasunak. Agirian ipiñi izan bait zuen euskaldunen musikanaganako zaletasuna ez ela urrundik etorria sustraitik sortua baizik. Honek gero ere harritzen gaitu gure artean ukan ditugun musikolari ikasiak aztertzen aski zabar izan bait gara.

Alaz guztiaz euskal jatorriko musikaria bikañak uste baño ugari ta emankorragoak ditugu antzinako menedeetan.

Neronek egindako azterketa apaletik anitz agertzen zaizkit hasi XIV mendean eta XIX menderaño. Izenak ea azturik dauzkagu naiz eliza eremuan oso goitar ibil; eta batik bat España'ko katedretan ospetsuenak izaki.

Nola ahantzi, alabainan Antxorena naparra 1432 urtekoa? Beste horrenbeste esan daikegu Azpeitia'ko seme Johanes Antxieta Errege katolikoen musikari nagusi izana.

España'ko zenbait katedraletan disdiragarri izan ziren: Pedro de Tafalla, Ardanaz, Eskarrego, Caseda, Martin de Otxoa, Egues, Arizmendi, Alkain, Aranaz, Aranguren, Garay, Mugerza, Zulueta, abar eta abar. Noiz sortu ta hil ez jakin arren musika maisu ikasiek orduko Europako musikari erantsiek. Organo jotzaille ezik «klavecínista» mota ezagutzen zutenak: Hayden, Mozart'en eskolakoak. Gure praile prantsikotarrok ez ziren atzean geldi, Arantzazu'k erakuste dugunez.

Uts egingo nuke emen Arriaga'ren izena aipako ez ba'nu... Mozart euskalduna deitua. Bilbo'n sortua et damurik gazterik 20 urte adiñez Paris'en hilla.

Gizaldi hontan, aldiz, ezin konta añako musikolari zenbatu litezke. Santesteban, Zapirain, Guridi, Usandizaga, Almandoz, Uruñuela, Aita Domingo, Iruarrizaga, Mokoroa, Buska, Gabiola. Urteaga, Otaño, abar eta abar... 1932 urtea geroztik izen anitz gehiago erantsi genitzake. Baiñan iñolas ere ezin aipa gabe utzi Ziburu'n sortutako Maurice Ravel. Amaren aldetik Delouart jaioa hau dugu, naski izenik ospatsuena.

Laburki itzulia honela zen 1932 urtean Aita Donostiak Bayona'ko Museoari opa zion gorasarre ta omenaldia.